

Antolatzailea

ekar

Laguntzaileak

ekar
fundazioa

eke-icb
EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA
INSTITUT CULTUREL BASQUE

Elkar Baiona

San Andres plaza • 64100 Baiona
Tf: 05 59 59 35 14 • Faxe: 05 59 59 61 62
baiona@elkar.eus • www.elkarargitaletxea.eus

IX. LITERATUR
SORKUNTZARAKO
BURTSA
2016

GAZTE



GAZTELUMA

IX. LITERATUR SORKUNTZARAKO BURTSA 2016

OINARRIAK

Baionako **elkar liburudendak**, **elkar fundazioaren** eta Euskal Kultur Erakundearen laguntzarekin, iparraldeko idazle gazteak euskaraz idaztera lehiatzeko asmoz, **Gazteluma**, **IX. Literatur Sorkuntzarako Burtsa** sortu du.

Bi urtetarik behin antolatuko da eta 3.000 euroko dirutza emanen zaio, epaimahaiak hautatuko duen eleberria edo ipuin bildumaren idazleari ondorengo oinarrien arabera:

- 1 Deialdi honetara, narratibazko lanak (eleberri edo ipuin bilduma) egiteko xedeak aurkez litezke, iparraldeko euskara batuan sortuak, beren zati bat edo osotasuna nehon argitaratu gabea dutenak, sarituak izan ez direnak eta beste nehongo idazlan batetik moldatuak ez direnak.
- 2 Deialdian edonork parte har dezake, 40 urtez petiko adina izanez gero.
- 3 Lehiaketan parte hartu nahi duen gazteak, hiru aldakitan eta bere benetako izena agerian jarri gabe, honakoak bidali beharko ditu bere idazlan egitasmoarekin batera:
 - Landu nahi duen idazlanaren aipamen laburra, 2-4 orrialdekoa, ezaugarri nagusiak agertuz, hala nola, luzera, estiloa, zergatiak, iturriak, egitura, helburua edo egoki idurituko zaion beste edozein xehetasun.
 - Idazlanaren erakusgai edo lagin bat 15-20 orrialdekoa, ez nahitaez kontakizunaren hasierakoa, baina bai zati bakarra osatzen duena.
 - Gutunazal hetsia, kanpoko aldean idazlanaren izenburua izango duena eta barruan egilearen izen-abizenak, helbidea, telefonoa eta nortasun agiriaren fotokopia.
- 4 Idazlanaren egitasmoa 2016ko urriaren 17rako helbide honetara igorri beharko da:
- 5 Idazlan egitasmo guztiak ikertuko dituen epaimahaia honako lagunek osatuko dute: Pantxoia Etchegoin

Eneko Bidegain, Piarres Aintziart eta Gexan Lantzirri; Peio Etxeberri-Aintziart botorik gabeko idazkari gisa izanez. Talde honek bere hautua 2016ko abenduaren 3a baino lehen plazaratuko du prentsa komunikatu baten bidez. Mahaikide batek bere lana ezin egina balu, haren ordezkoa beste mahaikideek izenda lezaketete. Behar bezainbat kalitatezko lanik ez balitz, dirutza eman gabe utz dezakete epaimahaikoek.

- 6 Hautatuko den egitasmoaren idazleak delako diru-kopuruaren erdia, epaimahaiaren erabakia jakinaraztean eskuratuko du, eta beste erdia idazlana argitaratzean. Egileak 2017ko urriaren 2rako lana eman beharko du.
- 7 Irabazleak, izendapena eskuratu eta gehienez urtebete epea izanen du, idazlan amaitua helarazteko. Idazlanaren luzera alde zurretik xehetzen zaila bada ere, liburua osatzeko heina izan beharko du: 25.000 hitz gutienez. Bitarte horretan, egileak hastapeneko egitasmoa aldatu nahiko balu, epaimahaikoei jakinarazi beharko die aldaketaren berri eta haien onspena eskuratu beharko du. Arrazoin berezi batengatik epea gibelatzea onar lezake epaimahaiak.
- 8 Idazleak bere lana helaraziko ez balu edo idazlanaren izaera eta kalitatea, epaimahaiaren iritziz agertu zuen egitasmoaren aldean txarragoak balira, ordura arte eskuratua duen dirua itzuli beharko du.
- 9 Lagundua izan den idazlanaren jabegoa egilearena izanen da. Alabaina, lan horrek ezingo du beste nehongo diru-laguntzarik edo saririk eskuratu, ez aitzinetik ezta ondotik ere, argitaratu osteko sariak izan ezik. Elkar argitaletxeak 2018ko Sarako azokarako argitaratuko du idazlana "GAZTELUMA" sailean. Bestalde, idazleak bere egile eskubideak ohiko moldean eskuratuko ditu.
- 10 Epaimahaiaren erabakiak onartu beharrekoak dira, bai idazlearen bai eta antolatzailearen aldetik.

